

## Bidegik ordainlekuetako zerbitzuak indartuko ditu Aste Santuko joan etorrien aurreran



### ***Asteazkenetik astelehenera Irungo eta Zarauzko kabinetan langile gehiago arituko dira espero diren 382.800 ibilgailuen zirkulazioa arintzeko***

Aste Santuko oporretako trafikoaren joan etorrien aurreikuspenen arabera datorren asteazkenetik, apirilak 13tik astelehenera, apirilak 18ra, AP-8 autobideko Irun eta Zarauzko ordainlekuetatik 382.800 ibilgailu igaroko dira. Hau dela eta Bidegi foru agentziak, kabinetako zerbitzuak indartuko ditu langile gehiagorekin joan etorria arintzeko. Era berean, zirkulazioa errazteko, bi autobideetan egiten ari diren lanak bertan behera utzi ditu. Tartean, astearte honetatik Zarautzko ordainleku nagusia berritzeko lanak etenda daude eta 19 erriak zabalik egongo dira. Zirkulazioaren aurreikuspenak, covid-aren aurretik, 2019ko Aste Santuan izandakoen antzekoak dira.

Asteazkenetik astelehenera Irungo ordainlekutik 183.900 ibilgailu igaroko dira bi noranzkoetan. Horietatik, 78.700 Iparralde-Frantziara joango dira eta 105.200 Behobiatik Donostia-Bilbo noranzkoa hartuko dute. Gorakada handiena Frantzia noranzkoan asteazkenean eta ostegunean espero da, eguneko 16.200 ibilgailurekin. Bilborantz, berriz, ostiralean -Frantziako lehen opor egunean- eta larunbatean, egunean 20.900 ibilgailu inguruan. Zarautzko ordainlekutik, berriz, 198.900 ibilgailu igaroko dira, 108.500 Behobiarantz eta 90.400 Bilbo aldera.

Zenbaki hauekin eta mugimendu gehien duten egunei begira, Bidegik Irun eta Zarautzko ordainlekuetan langile gehiago izango ditu kabinak irekita mantentzeko eta ondorioz trafikoa arintzeko, edozein halabehar berehala konpontzeko eta, ahal den neurrian, sor daitezkeen itzarote denborak murrizteko. Postuak prestatuta daude Abiatu moduko tag gailuekin, telefono mugikorrekin, erloju adimenduekin, kreditu eta zordunketa txartelekin eta diruzko ordainketak onartzeko. Halaber, foru agentziak gogorarazten du Biriatuko mugan gobernu frantziarrak ezar ditzakeen balizko segurtasun neurriak medio, auto-ilarak sor daitezkeela Frantzia noranzkoan.

Zarautz, 2022/04/12

## Bidegi refuerza los servicios de los peajes de cara a los desplazamientos de Semana Santa



### ***Las cabinas de Irun y Zarautz contarán con más personal para agilizar el paso de los 382.800 vehículos que transitarán entre el miércoles y el lunes***

Según las previsiones con motivo de las vacaciones de Semana Santa, desde el miércoles 13 de abril y hasta el lunes 18, 382.800 vehículos cruzarán por los peajes centrales de la AP-8 de Irun y Zarautz. Debido a ello, la agencia foral Bidegi, reforzará los servicios de las cabinas de los peajes para agilizar los movimientos de paso. También, y al objeto de facilitar la circulación, suspende todas las obras que se estén llevando a cabo en ambas autopistas. En este sentido desde este martes los trabajos de renovación del peaje central de Zarautz están interrumpidos



y los 19 carriles operativos. Se prevé que los tráficos sean similares a los habidos en la Semana Santa de 2019 previos al Covid.

Entre el miércoles y el lunes de la operación Semana Santa pasarán por el peaje de Irun 183.900 vehículos. De estos, 78.700 circularán en sentido Iparralde-Francia y 105.200 llegarán provenientes del país vecino dirección Donostia- Bilbao. Los días de mayor tránsito dirección Francia serán el miércoles y el jueves, con el paso de 16.200 vehículos al día, mientras que en dirección Bilbao los días fuertes serán el viernes, primer día de vacaciones en Francia, y el sábado, con un flujo de unos 20.900 vehículos/día. Por el peaje de Zarautz circularán 198.900 vehículos: 108.500 lo harán hacia Behobia y 90.400 en sentido Bilbao.

A la vista de estas estimaciones, Bidegi contará con personal de refuerzo para mantener abiertas todas las cabinas de los peajes de Irun y Zarautz durante los días de mayor flujo de vehículos para agilizar el paso, resolver al momento cualquier eventualidad y evitar, en la medida de lo posible, los tiempos de espera que se puedan producir.

Los puestos están habilitados para aceptar el pago mediante dispositivos tag como Abiatu, teléfonos móviles, relojes inteligentes, tarjetas de crédito y débito y en metálico. Asimismo la agencia foral recuerda que en caso de posibles controles de seguridad del gobierno francés en la frontera de Biriatu pueden generar retenciones sentido Francia.

Zarautz, 2022/04/12